

ELKARRI MOKOKA: Pello Azpirotz eta Andrea Etxarri **Oreka osasuntsua:** Nere Sotil
ELKARRIZKETA NAGUSIA: Miel Mari Elozegi **KUXKUXEAN:** Martxoko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



Inoiz baino inauteri errealistagoak

Joana Ziganda (Oskotz)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Geroz eta zailagoa izaten da inauterietarako mozerro originalak aurkitzen, baina Betelun, batzuek urrutiko pertsonailetan pentsatu beharrean bertatik bertara bilatu zuten inspirazioa.

Txangotik txangora

Ibarberri eskolako 2. mailako ikasleak gara eta aurten egin ditugun ekintza desberdinak erakutsi nahi dizkizuegu: herria ongi ezagutzera joan gara, ateraldia egin genuen Lizasora, askari osasuntsuak prestatzen ikasi dugu...

Hona hemen bizitako momentu polit horien argazkiak!!



Lekunberriko txoko desberdinak ezagutzen.



Lizasoko baserri eskola ikusteaz gain, abentura parke honetan erakutsi genuen zeinen trebeak garen.



Osasuntsu eta modu dibertigarrian jaten ikasi genuen.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

aitz
berri

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Urtarrilaren 9tik otsailaren 28ra bitarte gorputz tratamenduetarako (10 saio) bonuak %50eko beherapenarekin!

Aurpegiko tratamenduak (6 saio) %30eko beherapenarekin.

Martxoaren 30ean iraungitzen dira bonuak.

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu



10 > Miel Mari Eloseg

Miel Mari Elosegik Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuan egiten du lan. Asko dira Aralarren ditugun espezie babestuak. Oraingoan, bertan bizi diren hegaztiei buruz aritu gara eta basozai-nek oso maitea duten horietako bat aurkeztu digu, Kiriku ugatza.

15> Nor da nor?

16> Batzarre



18 > Luzia Peña

Bederatzi urte besterik ez ditu Luzia Peña lekunberriarrak eta dagoeneko argi du zein den bere zaletasunik handiena, musika. Joan den abenduan Baluartean estrainatu zen "Alí Babá y los 40 ladrones" opera emanaldian parte hartu zuen.

21> Lauburua: Asiar liztorra



29 > Pilota

Larraun Pilota Elkarteko pilotariek dagoeneko jokatu dituzte Neguko Txapelketako finalak.

30> Kuxkuxean: Martxoko zorian agurrak

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia

Laboral Kutxari ipurdian zirti-zarta

Laboral Kutxak leku askotan esana du, euskara berarentzat guztiz funtsezkoa dela eta horregatik, betidanik ahalegindu eta ahalegintzen dela euskara ahal den gehiena bultzatzen, eta, nik sinesten diot. Urrutirago joan gabe, eta erakusgai moduan, hortxe dugu Kike Amonarrizek ETB1en egindako programetan, behin eta berriz azpimarratu baitu ideia hori, eta nik berriz ere diot sinesten diedala, baina, oso ongi dakigun bezala, mundu honetan ez dago inor perfekturik; denok ditugu geure akats eta hutsak.

Hori horrela, hementxe kontatu behar dut zer gertatu zaidan Iruñean azken urteotan. Duela hiru hamarkada pasatxo geroztik, Laboral Kutxako (lehenago beste izen batzuk ere izan ditu) bezero zintzoa izan naiz eta naiz, Iturrama auzoan. Pio XII.a etorbideko sukurtsalean, urte askoan beti topatu izan nuen langileren bat, zerbitzua euskaraz era egokian ematen zidana. Orain, ordea, azkeneko hiru-lau urte honetan, Antso Azkarra hiribideko eta Iturrama kaleko sukurtsaletan, ez daukat inondik ere modurik zerbitzu berberak euskaraz jasotzeko, alegia, izapide arruntak, kontratuak, hipotekak, errenta aitopenak, aseguru kontuak egiteko, eta abar.

Era berean, ozen eta garbi aitortu eta esan beharra daukat, hango langile erdaldunek ematen didaten tratua guztiz ona eta atsegina dela, hau da, arrunt fina, baina gaztelaniaz, gazteleraz, espainieraz, nahiago bada; inoiz ez euskaraz!!!

Jakina da esaten dela bezeroak beti daukala arrazoia. Ea, bada, egia ote den eta laster nabaritzen dudan hobekuntzaren bat. Uste dut, hiru-lau urte nahikoak direla itxoiteko, neronek egin dudan bezalaxe. Ala, Laboral Kutxak ontzat eman behar ote du hobetik txarrera joatea? Esaera zahar batek dioen bezala: "Zalditik astora eta astotik lurrera!!!".

Suposatzen dut, Laboral Kutxak bere arazoak izanen dituela, enplegatu horiek euskaldunez ordezkatzeko, baina hori jadanik ez da nire afera. Nik dirua jartzen diet, eta trukean, nire hizkuntza-eskubideak ere baditut.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz

Martxoak 8 zutitu gaitzen

Beste urte batez, Emakume Langilearen Egunaren testuinguruan ekimen ugari izanen ditugu han eta hemen, eta Larraunen ere horrela izanen da. Ekimenekin batera, gogoetarako une gisa erabili izan da egun hau, mugarri bat delako emakumeen eskubideen defentsan. Aurtengo Martxoaren 8an honako gai hau landu nahi dugu zuekin Larraun berdintasunetik taldeko kideok: Zaintza lanak.

Pentsatu duzue noizbait nork zaintzen duen nor gurean? Eta nola antolatzen den gure gizartea? Gizakiok onartzen al dugu bizitzeko beste gizakiak ere zaindu behar ditugula? Eta, horrela bada, baloratzen al dugu?

Galdera horien erantzunak ondorio batzuetara eramanez gaitzake. Larraun berdintasunetik taldeak bere ekarpena egin nahi du gai horren inguruan. Gure ustez, egungo sistema ekonomikoaren iraunkortasuna bermatzen du zaintza lanak, baina ikusezina gertatzen da gizartearentzat eta, hori gutxi balitz bezala, emakumeari tokatzen zaio horren karga eramatea. Batzuetan, gainera, zigortu egiten gaituzte eremu publikoan, eta uko egiten diote haurrak izateko garaian dauden emakumeak kontratatzeari.

Esparru publikoan dagoen lan produktiboak errekonozimendu soziala eta ekonomikoa dauka. Aldiz, bigarren mailako zeregin gisa ageri da zaintza lana, errekonozimendurik gabeko lan gisa. Eta askotan, gainera, lan prekarioak izaten dira. Gure ustez, eredu hau bizitzaren kontra doa eta lan-banaketa gainditzeko pausoak ematen hasi behar dugu, zaintzaren balio soziala berreskuratuz eta bizitzaren antolaketaren erdigunean jarritz. Eta hori izanen da gure lan ildoetako bat hurrengo egunetan.

EKIMENAK:

-Martxoak 8, Lekunberriko garbiketan, Larraungo emakumeari omenaldia, arratsaldeko 19:00etan.

-Martxoan zehar, zaintzari loturiko tailerrak.

Larraun berdintasunean

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.

Lekunberriko udala

KONTRATAZIOETAN KLAUSULA SOZIALAK SARTZEKO KONPROMISOA

EH Bilduren ekimenez, Lekunberriko udalak aho batez onartu zuen lantalde bat osatzea kontratazio-prozedu-
retan (obrak, zerbitzuak...) klausula sozialak sartzeko. Udal batzarrean hartutako konpromisoak helburu nagusi
bat dauka: kontratazio publikoetan, ohiko irizpideez gain, herritarrei onura ekarriko dioten baldintza sozialak
bermatzea. Horrenbestez, hurrengo egunetan lantalderako proposamen integral bat planteatuko dugu kontra-
tazio publikoko prozeduran gizarte, ingurumen, lan, hizkuntza edo berdintasun klausulak txertatzeko.

2017KO AURREKONTUAK

Lekunberriko Udalak aurtengo aurrekontuak argitara eman ditu. 2.554.201 euroko aurreikuspena egin du diru
sarrerak eta gastuak kontuan hartuz. Hona hemen aurrekontuan bildutako zenbait gastu eta inbertsio:

- 425,861,63 euro zuzenduko ditu sare fekaletan isuriak murrizteko biltegia eraikitzeko.
- 15.000 euro aurrekontu parte hartzaileetarako inbertituko dira.
- 12.300 euro banda zabalaren instalaziorako.
- 15.000 euro zuzenduko dira industrialdea zabaltzeko.
- 239.900 euro erabiliko dira maileguen amortizaziorako.
- 50.000 euro hilean 60 nitxo berri eraikitzeko.

JoandakoakGogoan

“Zuhaitz bezala lurtean, kantuak bezala haizean...”

**Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu
638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak
aldizkariaren bitartez.**

(Dohako zerbitzua).



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDE GOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Bertso berriak.

Mailoperi jarriak

Joana Ziganda (Oskotz)



*Nafarroan txapelketan
dugu ordezkari.
Barrua hustutzeko
gogoz eta adi.
Bertan egote hutsa
denez nahiko sari,
eskerrak bertsoeskolan
dudan laguntzari*

*Nire oinen azpian
sentituz oholtza,
mikrofonoan barna
hedatuz ahotsa,
ta bertso bakoitzean
jarrita bihotza
aukera ta bertsoa
nahi nituzke goza*

Aitor Irastortzari puntua: _____

Eskuetan al dugu
guk etorkizuna.

Oinak: _____

oinarria , egarria, jarria, pozgarria



Doinua: "Azienda bat dago"

- 6 -



EGOITZA BERRIA DU EUSKALTEGIAK

Larraungo AEK euskaltegiak bere egoitza aldatu du. Orain, Artzanegi kaleko 6. zenbakian daude, beheko solairuan, lehen Goiko lore-denda zegoen lekuan.



ERREFUXIATUEI LAGUNTZA

Errefuxiatuentzako arropa bilketa egin zuten Mitxasenea kultur etxean. Gogorra izaten ari da negua kalean pasatzen ari diren errefuxiatuentzako eta ehundaka arropa poltsa bidali dituzte AHNA erakundearen bitartez.



LACTURALERA BISITA

Joan den hilean AEKko ikasleek Lacturalera bisita egin zuten. Etxeberrin da goen behitegian izan ziren instalazioak bisitatzen eta bertan esnea behia jeizten denetik botilaratzen den arte daran prozesua azaldu zieten.

Genero kontuak



Pello Azpiroz

Iepa!!! Zer moduz, Andrea? Duela gutxi ezohiko (asko harritu ninduen, onerako noski) berri bat irakurri nuen. Euskal Herrian egiten den lehendabiziko emakumeen binakako esku pilota txapelketa martxan dago. Txapelketa elite eta lehen mailan ari dira jokatzen. Gizonezkoen kasuan, jakina denez, askoz ere lehenago hasi ziren txapelketak.

Pilota, beste kirol asko bezala, oso maskulinizaturik dago, zoritxarrez, zaila da oso neskek pilotan jokatzen ikustea. Ez Lekunberrin ikasten nuenean, ezta



Andrea Etxarri

Aupa, Pello! Pozten nau adierazten duzun berriak, hala ere, atentzioa eman zidan beste informazio batekin kontrapuntua emango dizut. Ezagutzen al duzu Carli Lloyd? Ba al zenekien emakumezkoen Urrezko Baloia saria bazegoenik? Ikusten denez, batzuei ez omen zaie interesatzen horrelako berriek argia ikustea, hedatzea, emakumeei egiten dutenagatik, gizonei ematen zaien bezala, prestigio hori ematea.

Dena den, eta honek guztiak hasiera non duen argiago ikusteko txikiak gareneko momentura joko dut.

“Askotan sexu eta genero hitzak nahastu egiten ditugu”

Leitzan (hain herri pilotazalean) egon nintzenean ere, ez nuen neskarik ikusi esku pilotan jokatzen. Honexegatik, pozgarria iruditzen zait aurrera pauso hau eman dela irakurtzea prentsan.

Emakumea tokia egiten ari da eremu desberdinetan, asko kostata, baina pixkana-pixkanaka aurrerantz doa. Geroz eta gehiago ezagutzen ari gara beraien lanengatik, jardunarengatik... Baina oraindik gizonen nagusitasuna nabaria da zientziaren munduan (zenbat emakume zientzialari ospetsu ezagutzen ditugu?), botere handiko karguetan (herrialde boteretsuenen goiburuei begiratu), kirolean...

Askotan sexu eta genero hitzak nahastu egiten ditugu. Sexua ezaugarri biologiko edo fisikoekin lotuta dago, generoa berriz eraikuntza sozial bat da, hau da, gure sexuaren arabera gizartean rol jakin bat betetzera bultzatzen gaituzte. Eta hortxe uste dut dagoela gakoa posible den heinean (bat-batean gertatzea ezinezkoa baita) eredu eta ohitura hauek aldatzen joatea, norbere etxean, espazio publikoetan, aisialdian, lanetan...

Eredu hauek aldatzen ari direla uste dut (hasieran aipaturiko kasua adibide) nire inguruari dagokionez behintzat. Hausnartu dezagun honen inguruan eta saia gaitezen denok guri dagokigun esparruan berdintasunaren alde lan egiten, etorkizuna gure esku dago!!! Zer moduz, Andrea? Zein da zure ikuspuntua?

“Identitate eraikuntza txiki-txikiak garetik hasten da”

Bai neska bai mutilen identitate eraikuntza txiki-txikiak garetik hasten da. Hasteko, pelikula eta ipuinetan. Azter dezagun, emakumezko protagonistak “onak” edo eredugarriak oraindik ere hein handi batean lirainak, ekintzarako inizatiba gutxierekin (etxean printzearen esperoan), sumisiorako joerarekin... dira. Eta, mutilak? Identifikaturik sentitzen al dira guztiak ematen zaizkien ereduarekin? Zer jokabide onesten edo saritzen dira neskegan? Eta mutilengan? Azken finean, beren sozializazio prozesuan lehen urratsak ematen hasten direnetik, bakoitzak hartu beharreko rola karga sexista handikoa da. Beste adibide batzuk jartzearen: mutilentzako eta nesken-

tzako jostailuak. Edo lehengo egunean eskolan haurrek esan zidaten moduan, ba omen daude mutil eta neskentzako filmak ere! Pentsa zer garbi jasotzen duten mezua!

Usteko berdintasun batean hezi garen belaunaldia gara, eta honek alarmak itzali eta hausnartu gabe lasai geratzeko arriskua dakar. Nire iritziz, puntu garrantzitsuenetako bat honakoa da, sexismoaren apurketa gizarte osoari dagokion helburu bezala ikustea. Gizonek ere pairatzen baitituzte sexismoaren ondorioak. Mende honetarako erronka batzuk jartzen hasiz gero: introspekzioa bultzatzea exhibizionismoaren aurrean, erreferente maskulino zein femenino anitzagoak ematea, norbera den bezala izateko alternatibak eskaintzea eta aniztasuna errespetuz bizitzea. Eta ez ahaztu, aurrera ez bagoaz, atzera goaz.





Leire Aranburu

LUZE

“Aurrera” goaz

Azkenaldi honetan, noranzko aldaketa bortitzak jasaten ari gara, eta bat bera ere ez doa norabide berean. Gizateria izatez pentsatzeko gai omen da eta honi jarraika eboluzionatzen dugu, baina ez dakit ze punturaino ari garen eboluzionatzen. Egia da teknologia erritmo galdi ezinean doala aurrera, egia da gero eta ezagutza gehiago ditugula, egia da gero eta gehiago dakigunez, gure kabuz gero eta gauza gehiago egiteko gai gara. Baina esan beharra dago, sozialki aurrerapena ez dela horren argia. Gizakiak dirua eta boterearekin alderatuta ez du inongo garrantzirik. Adibide argiak ditugu, Ipar Amerika naiz hemen bertan, pertsona gutxien errespetatzen duten politikak indarrean dauden lekuetan. Horrelako jarrerak onartzeko gai bagara, are gehiago, horrelako jarrerak onartu eta gure etorkizuna beraien eskuetan jartzeko gai bagara, argi dago, eboluzioa kasu honetan ez doala norabide egokian.

Gero harritu egiten gara zenbait alibisterekin, gazteen artean indarkeria kasuek gora egin dutela, pobreziak gora egin duela, langabeziak gora egin duela, hildakoak han hemengo guduetan, gastuek gora egin dutela, soldatak baxuagoak direla... Ba normala, besteenganako errespeturik ez duten pertsonak boterean jartzean, hori da ematen den eredu. Besteen gainetik eta besteen kalteak onura pertsonalerako erabiltzea arrakasta naiz zorian-tasunarekin erlazionatzen erakusten digute. Eta guk ekintza hauek, hartu eta normalizatu egiten ditugu gure artean. Gizakiak garen aldetik erres-



“Sozialki aurrerapena ez da teknologian bezainbestekoa”

petua aldarrikatzen dugu baina behin gurea lortuta, (edo lortu dugula uste dugunean) dirudienez gainontzekoen eskubideek berdin digute. Esan bezala gutziz atzeratuak gaude zientzia sozialen gai honekin.

Konponbidea? Ez dut uste konponbide kontua denik, konponbideak aurkitu aurretik, uste dut konpontzeko gogoak aurkitu behar direla, eta honen aurretik honi benetan duen garrantzia eman beharko litzaioke. Arazo bat dela identifikatu eta gu arazo horren erantzule ere bagarela onartu. Eta munduan dauden bidegabekeriak denon

arazo bezala ikusi eta ez kaltetuaren arazo bezala, gainera kaltetu horiek erredun moduan jartzen ditugu, horra hor gizateriaren inteligentzia. Baina dirudienez, errazagoa da esaten digutenari jarraitzea. Tristeena da, uste dugula ditugun pentsamenduak gure ideia propioak direla eta gehiengoaren onurarako ari garela lanean. Hori gezurra da, gutxiengo batek agintzen du munduan eta guk beraien interesen alde egiten dugu konturatu ere egin gabe. Pobrenek pobreago bihurtzen dira eta agintzen dutenek oportetako etxe berria daukate.

Esan bezala sozialki ez gara batere sofistikatu eta aurreratuak, animalia basatienak baina ergelagoak gara. Beraiek gutxienez, beraien buruaren onura eta bizirautearen alde egiten dituzte egiten dituztenak, guk berriz, beste batzuen desio eta botereak elikatzen ditugu.

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



Konfiantza eta haserrea

Kaixo irakurle. Udaberriaren atarian gauden honetan, loratze prozesuan laguntzen ari zaizkidan prozesuak zurekin partekatzen nator. Teorikotik eta praktikotik jana du honek, beraz, ea ze zaporea hartzen diozun. Hausnarketak, Leitzako institutuan egin ditugun lan batzuen aurrekariak eta ondorioak dira honakoak. Teresa Martinezekin batera, 3. DBHkoekin bizipen fisikoan izango dituzten esperientzia psikologikoak lantzeko eskatu ziguten. Hau idazten ari naizen momentuan, oraindik ez dugu bukatu, baina hausnarketa batzuk badituzuekin partekatzeko.

Bi egunetako saioak ditugu gelako, hau da gure planteamendua. Aurreneko saioa besteekin eta nork bere buruarekin konfiantza lantzeko aukera izateko bideratuta dago, hori sentitzea eta hori garatzen ausartzea. Bigarren egunean, berriz, errabia eta haserrea onartzea, sentitzea eta hori ateratzea ere, nork bere boterea eta lekua sentituz. Errespetu handiarekin joan gara biok taile-rrak ematera, badakigulako ez direla gai errazak 14-15eko adinean, baina iruditzen zitzaigun oso garrantzizkoak zirela eta horregatik ausartu ginen.

Haiekin egindakoaren ondorioak ateratzeko goizegi denez, planteamenduaren hausnarketak egiteko aprobeztatuko ditut lerro hauek. Hasteko, uste dut gizarte lehiakor batean bizi garela, ez daukagula oso argi, edo baldin badugu, naturalizatuegia dugula eta ez garela ohartzen sortzen digun gehiegizko estresaz. Gelan elkarrekin lehiatu behar dugula notarik onena ateratzeko, kanpoan kirolean elkarrekin lehia... Onena psikologikoki indartzen da eta besteak "galtzaile" sentazioarekin geratzen dira sarri.

Eta euskaldunok badaukagu beste lehia mota berezi bat: zein azkarragoa izan buruz eta zeinek gaitasuna izan bestea baino azkarragoa izateko, adarra



“Gizartean ez hasarretzen erakusten zaigu”

jotzeko, “zakurragoa” izateko, bestea izorratzeko... Hau batez ere nerabezaroon asko erabiltzen den boterea dela iruditzen zait. Min handia egiten duen boterea da gainera, gu nor izateko erabiltzen duguna eta inguruko min egiten dioguna. Ni, gorputzez indartsua ez eta, honetan trebea izanda, orain ohartzen naiz botere hau erabiltzen nuela nerabezaroon, beraz, barka nazatela min eman nien guztiek.

Giro horretan, ez da erraza konfiantza sentitzea, lagun gutxi batzuekin erlaxatzen gara, baina bestela gorputza sarri alertan daukagu, gure ingurukoak etsai moduan sentitzen ditugu, nork izorratuko... Komunikabideek sortzen duten beldur sentazioa ere hor dago... Aldiz, konfiantza sortzea lantzen den zerbait da, bai emateko orduan bai jasotzerakoan ere. Gorputzez erakutsita laguntzeko gaudela, bestearen ardura hartzen dugula, gure gorputzak sentitzen duenean bestea lagun duela, magia alkimiko bat ematen da barruan eta harremanetan jartzeko modua aldatzen da,

hobetzen da, lasaitzen da. Hau guztia bizi nahi genuen pixka bat ikasleekin.

Eta bestalde, bigarren eguneko gaia, haserrea da. Baina ez kexa, erretxina edo diskurtsoak, ez, aurrez aurreko haserrea. Gizartean ez hasarretzen erakusten zaigu, txarra balitz bezala, autoritateari ez aurre egiteko edo. Aldiz, botere bezala ere erabiltzen da haserretzea, oso “haserrekorra” banaiz, jendeak beti nik nahi dudana egingo du, bestela haserretu egiten naizelako... Hau ere umezaroon eta nerabezaroon erabiltzen den “botere” bat dela iruditzen zait. Gainera, haserrea erreakzio “ez gustagarria” dela uste dugu, ondorioz, ez dakigu behar bezala eta behar denean haserretzen, eta horrek desorekak izatera garamatza.

Aurrez aurre haserretzearen sentazioan hastea nahi genuen ikasle hauek. Sentitzen dugunean eta sentitzen dugun bezala. Horrek ze benetako indar ematen didan benetakoa denean. Egindakoan pasatzen baita, ez badugu egiten hor geratzen da bueltaka eta behar ez dugunarekin ordaintzen dugu. Ikasleei eman nahi honetan, iruditzen zait, batez ere nik hartu dudala ikaskuntza eta bizipena. Ba al duzu nigan konfiantzarik ala haserre zaude?



Kiriku, Aralar inguruko ugatz txuria

- 10 -



Miel Mari Elozegi leitzarra, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuko teknikaria da. Urte askotan ibili da mendian mostero lanetan. Aralar inguruan ezagutzen ez ditugun hegazti eta espezie babestu asko dauzkagu, horien kontserbaziorako hartzen dituzten neurriei buruz arituko gara berarekin.

Zein da zure eginbeharra Ingurumen Departamentuan?

Ni duela lau bat hillabetetik Nafarroako eskualde atlantikoko teknikarie naiz. Natura 2000 sarea, espezie babestun kontserbazioa eta eunerokoan sortzen dien hamaika saltsataz arduratzen naiz.

Aralar Natura 2000 sarearen barruan dago...

Aralar oso interesgarri da, alde askotatik gainera, eta horregatik dao Natura 2000 sarean barrenen. Balore pille bat dauzke, landare berezik daude, animalia espezie berezik, paisaje aldetik e berezie da, artzantzarako erabilera berezi batzuk ere badittoa etab.

Eta sare horren barruan egoteak zer suposatzen du?

Europak Espainiari eta Espainiak komunitateei zerrenda bat eman die zehazteko interesgarritzat jotzen diren edo babes berezia behar duten zein espezie edo habitat dituen. Eta Aralarrek garrantzi handiko baloreak zittun hor sartzeko eta halaxe egin zen. Natura 2000 sarearen barruan egoteak esan nahi do Nafarroak konpromisoa hartzen dula balore horiek kontserbatzen saiatzeko. Nola? 2014ko dekretu batek zehazten do zein den kontserbazio hori lortzeko jarraitu beharreko plana. Dena den, Nafarroaren laurdena Natura 2000 sarearen barrenean da: Artikutza, Bertizarana, Aralar, Andia, Urederra, Ultzamako hariztiak..., bakoitza desberdine da eta praktikan ez da errexa baloreen kontserbazioa bermatzea.

Baloreen artean hegazti espezie baxenak daude...

Bai eta badie guretzat arruntak dien hegazti edo bestelako elementu asko, baino European ez dienak bate arruntak eta interes bereziko zerrendan sartzen direnak. Adibidez, abeltzaintza estentsiboa, maiatzen ardik Aralarrea igotzea eta udazkenen jaistea, guk milaka urtetan in dun hoi, European berezie da. Europako leku gehienetan abeltzaintza intentsiboagoa da eta aberekin goi hoitan eottea oso gauze berezie da. Horregatik balore hori zaindu in beharko giñukeela esaten diutea, artzaintza tradizionala aberastasun bat ai delako sortzen, larrek mantentzen, paisaia bat sortzen, eta horrek beste espezie batzuk bizitzeko aukera ematen dulako.

Aralarren nabarmentzeko moduko zein hegazti ditugu?

Araitz, Larraun, Sakana eta bereziki Malloa oso leku interesgarriak da. Aralar inguruan jende asko ibiltzen da onddotan, ehizen, paseoan, korrika, bizikletan... Baino Aralarren badaude leku txar amorratuak ibiltzeko, oso pikoak dielako eta hor espezie batzuk babesa aurkitzen dute. Batzuk arruntak die adibidez putreak edo saiek, guretzat gora beittu eta putre bat ez ikustea arraroa da. European ordea ez, ez dauzkea horrenbeste putre eta arreta berezie behar duela esaten diutea, kontserbatzen saiatzeko. Aralarren ez dakit zenbat bikote dauden guztira, beño ehunetik gora asko izanen die.



Kiriku hamaika urteko ugatz txuri bat da.

“Ugatzak ez du kumatu gutxienez azkeneko 100 urtetan”

Arrano beltza ere badugu...

Bai, oso espezie berezie. Nafarroan kabi mordoia dugu, 100 inguru, beño arrano beltzen lurralde bakarra Aralar inguruan. Belatzak e badie, Araitzen bertan hiru bikote. Arrano sugezalea, hontz haundie, arrano tikiin bikote batzuk ere badie... Eta miru gorrie, guretzat espezie arrunta dena, European oso berezie da eta leku askotan martxa txarra darama gainera, desagertzeko arriskuan dago. Hemen asko dago, beño European eskas da, horregatik kontserbatzen ahalegin berezie egin behar dugu.

Baina bada guretzat horren ohikoa ez den hegazti bat ere, ezta?

Bai, ugatza. Ugatza (“quebrantahuesos” espainolez) putrearen familiakoa da. Sarraskijalea da, baina dieta xelebrea dauke, hezurrek jaten ditto. Bere dietan portzentaje altuna hezurrek osatzen dute. Azienda bat hiltzen den putrek, belek, miruk, sai zurik eta gainontzeko animalik garbitzen due eta hezurrek gelditzen die. Ordun ugatza jaitsi eta hezurrek jaten ditto. Hezur haundinakin irentsi ezin dittonen, hanketan hartu, gora igo eta bere burue harkaitzen pa-

ren ikusten dunen hezurre askatu eta pusketatan hausten du jan ahal izateko. Hori Piriniotako leku askotan eta Aralarreko txokoren batean ikusi ditteke eta oso gauze berezie da.

Sai zuria ere aipatu duzu...

Bai, sai zurie putre txuri tiki migratzaile bat da, hegal puntte beltzak dituna eta Aralarren zortzi bat kabi izanen die, lau Araitzko aldetik. Hori ere oso espezie arraroa da European. Beraz, aberastasun haundie dauku Aralarren. Guretzako horietako asko arruntak dienez, zalle itten zaiu ulertzea, baina zaindu beharreko gauzek die.

Ugatzaren kasua da berezieta ezta? Ugatzak Aralarren bizitzeak garrantzia handia du zuentzat...

Bai. Ugatza Pirinioetan kumatzen den hegazti bat da. European oso gutxi daude. Alpetan daude gutxi batzuk, desagertu ondoren sartutakoak, Afrika eta Asiako zenbait lekutan ere badira, baina European oso eskasa da. Horregatik, mundu mailan espezie hori mantentzeko lan asko itten ai die.

Eta Aralarren nolatan?

Aralarren beti ikusi izan dira ugatzak, baina ez da kumatu gutxienez azkeneko 100 urtetan. Piriniotatik Aralar eta inguruetara maiz etortzen dira ugatzak. Hegazti hauentzat 200 edo 500 kilometro egitea errexa da eta Pirinioetatik honea

elkARRIZketa:

“Kiriku Arbaiun ondoan jaio zen, San Kiriko ermita dagoen inguruan, orain hamaika urte inguru izanen ditto”

etortzen die inguru honetanazienda asko dagoelako eta pazka asko izaten delako. Azkeneko hogei urteotan jarraipen finagoa itten hasi ga, hilean behin, basozainek zenbait puntutan jartzen die kontrolatzen. Egun berean, Aralarren bi lekutan jartzen die, gipuzkoarrak beste bi lekutan, beste batzuk San Donaton, Andian, Lokiz aldean, Baztanen, baita Arabako lekuren batean ere... Egun eta momentu berean leku ezberdinetan jarrita basozain guzik konektatuta eotten die. Esaterako, basozain batek ugatza ikusten bado abisua pasa eta aldi berean beste batek beste ugatz bat ikusten bado badakite bi ugatz ezberdin direla. Horrela, pixkanaka informazioa biltzen ai ga eta ikusten du ugatzek Aralar erabiltzen dutela eta batzuk bertan boladak egiten dituztela.

Eta azkeneko urteotan ez dute umatzea lortu?

Ez. 2000. urte aldera, Andian bikote bat sartu zen, bi urtez kumatzen saiatu ziren, baina ez zuten kumerik atera eta bikote hura desagertu in zen. Ez dugu uste inguruotan geroztik beste



Aralar inguruan hegazti askok aurkitzen dute babes. Argazkian, Kiriku.

saiakeraik izan denik. Orain dela bost bat urte ugatz bat azaldu zen Aralarren, txuri-txurie zen eta markatue zegoan. Hankan jartzen zaien eraztuna urrutitik ikustea oso zalle da. Baina ugatz honen plastikozko banda ikusgarri batzuk zittun hegaletan, habian zegoela jarritakoak. Horri esker jakin giñun non jaio zen, Arbaiun ondoan, San Kiriko ermita dagoen inguruan eta horregatik, Kiriku izena jarri zioten bere garaian. Banda horiei esker jakin giñun hegazti horren historia. Orain hamaika urte inguru izanen ditto.

Oraindik Aralarren jarraitzen du?

Bai, bertara egokitu da. Egun batean, harrapatu eta hegazti horri buruz ahalik eta informazio gehien ikastea erabaki zuten. Lan hori gipuzkoarrek eta naparrek elkarlanean in zuten. Aralarko puntu batean hezurak botatzen hasi ziren, eta ugatzak leku horretan pazka zuela ikasi eta jatera jaisten hasi zen. Egun baten tranpa jarri zioan eta sare baten bidez harra-patzea lortu zuen eta irrati transmisore bat jarri zioten.

Nola?

Oso teknologia aurreratue da. Irrati transmisore arin bat jarri zioten motxila moduko baten eta hamar hillabetez eraman ondoren galdu in zun, lotzeko uhala urratu zelako. Victor Matarranzek jarri zion, Espainian dagoen aditu onenak. Transmisoreari esker, bagenekien egunero nondik nora ibiltzen zen eta hegazti hori inguruan egokitu zela jakin

genuen. Aralar inguruan maitzen zen, Malloa asko erabiltzen zun, Gipuzkoa aldeko Aralar ere asko erabiltzen zun eta noizen behin Piriniora joaten zen, Nafarroa gurutzatu, eta Jaca edo Ordesaraino iristen zen han eun batzuk pasa eta gero berriz bueltan etortzen zen.

Eta zer gehiago dakizue Kirikuri buruz?

Momentu baten, basozainek ikusi zuten putreei egurra ematten hasten zela. Animalia batek lurraldea defen-

“Azkeneko hilabetetan ugatz-bikotea sortu dela dirudi”

datzeko itten do hoi. Eta ohartu ginen laune bilatu zula. Laun bat beño gehio izan ditto Kirikuk, ugatz ezberdinekin ikusi izan due, beño azkeneko hillabeteetan basozainek ugatz berakin ikusi due, elkarrekin lotan etab. Beño beste ez dao markaturik, ez dakiu zein den, ze sexu dun... Kiriku arra da, beraz, ugaltzeko eme bat behar luke, beño ez dakigu laguna hala ote den. Dena den, basozainak gertuko jarraipena itten ai die eta azkeneko hillabeteetan ugatz-bikotea sortu dela dirudi.

Beraz, umatzeko aukerak egon daitezkeela uste duzue?

Hori gauze haundie litzake! Nafarroan ugatzen zazpi lurralde ditugu, eta iaz adibidez, ugatz-kume bakarra hegatu zen. Ikusi zer-nolako garrantzie dun lurralde bat izateak! Aralar inguruko ugatzei momentuz ugaltzeko sena piztu zaiela esan dezakeu. Erne egon beharko da etorkizunen zer datorren ikusteko.



Irrati transmisore bidezko lokalizagailu bat jarri zioten Kirikuri.

Aralarren horrenbeste espezie ezberdin egonik, ez dago arriskurik espezien norgehiagoka horretan, batzuk ingurune horretatik alde egiteko?

Espezie desberdinen arteko lehia normala da. Adibidez, sai pille bat dao eta leku hobenak hartzen dittue. Gainera oso goiz hasten die kumatzen, hegazti haundik die eta sai bat bere lekutik uxatzea oso zalle da. Ugatzarentzat behar bada, sai gutxigo eo-ttea hobea litzateke, Aralarren kumatzen saiatzeko.

Ugatza kontserbatzeko hainbat proiektu egiten dabiltza espainiar estatuan...

Bai, azkeneko hogeit bat urtetan esaterako Andaluzian eta Picos de European, ugatza berreskuratzeko proiektuetan diru pille bat gastatzen ai die eta iaz lortu zuten aurrenekoz Cazorlan ugatz kume bat hegatzea. Zentroetan zaurituta iri-tsitako ugatzak dittue eta mendira bueltatu ezin dien arren, kaiola haundi baten bizi ditteke, eta laune jarriz keo kumatu ditteke eta gero kume hoiki mendin askatu. Aralarkoa naturala da, beraien kabuz iritsi die gurera eta gustatu egin zaie, horrek bere garrantzie do. Are gehiago Piriniotatik aparte xamar gaudela kontutan hartuta.

“Sarraskizale guzien arazo handienetakoa pozoia da”

Eta etorkizunean hemen finkatzeko aukerak badirela uste duzue?

Momentuz ikusten ai ganak itxura ona du. Ugatzak gero eta maizago ikusten ditugu inguru hauetan eta gauze polita da hori. Aralartik gertu dute Andia, Aizkorri, Gorbeia eta handik Burgosera salto in dezakete. Lekue badute, arazoa da hegazti honek jaio zen ingurure itzultzeko joera dula, eta Piriniotatik ez diela momentuz, kabiak zabaldu.

Eta noiz ugaltzen dira ugatzak?

Hegazti haundi hauek oso goiz hasten die. Naparroko aurrenekoak iazko abendun erruten hasik zien. Azkenak otsaille haseran. Arrautze txitatzen 50 bat egun pasako dittue eta gero txitxek kabin ia lau hillabete, uztailla-abuztu aldera hegatzeko. Luze!

Ezagutzeko modukoak al dira ugatzak?

Hegazti berezik die, oso haundik. Putrek



Sai zuriak ere aurki daitezke Aralarren.

ikusten ohittuta bazaude konturatzen za ezberdine dela. Ugatzak buztan txorrotxa do, luzea, normalen helduk dienen orixkak edo laranjak die eta gaztek beltzak.

Bestalde, espezie berezien kontserbazioak badu eztabaida sortzen duen beste alde bat, esaterako EHME bezalako lasterketekin sortzen direnak...

Bai, lasterketa bat, baso-ustiapen bat edo Natura 2000ko balore naturalatan eragina izan dezakeen edozein jarduerara zaindu egin behar da, inguru horretako baloreak kontserbatzen direla bermatzeko. Geroz eta lasterketa gehio daude, geroz eta korrikalari gehiagorekin eta geroz eta luzeagoak dira eta eremu babestuetatik gero eta maizago pasatzen die. Horregatik, kontrolatzea tokatzen da eta beharrezkoa bada, jende kopurue mugatzen da, beste batzutan datak egokitzea tokatzen da, edo dena delako erabakia hartzea ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Leku eta balore garrantzitsuenek arreta berezie behar dute. Adibidez, landare espezie bat baldin badago leku batean bakarrik dagoena eta bizikleta lasterketa bat pasatzen bada hortik, ziurtatu behar duzu landare hori ez dizutela urratuko. Azken finean, interes ezberdinek zapaltzen die. Lasterketek desnibel eta leku zoragarri bilatzen due, baino leku zoragarri hortan jarduera hauek arriskuan jarri ditzaketan balorek daude. Hau bateragarri egittea da lortu behar dena.

EHMEren kasuan, arazorik izan al duzue inoiz?

Ez. Aspaldi gabiltza hizketan eta oso jarrera onakin. Borondate ona erakutsi due, beraietako batzuk ere naturzalek die eta beren lasterketa itten seittu nahi due, beño ahalik eta inpaktu txikiena sortuz.

Ahal den neurrin, lasterketaren egunean kontrolatu egiten dugu, eta orain arte ez du ikusi beste munduko inpakturik eragiten duenik. Egunen baten ikusiko balitz lasterketaren erruz ibilbideko balorearen bat arriskuan jarzen dela, lasterketaren ibilbidearen zati bat aldatzea proposatuko genuke, data aldatu, edo dena delakoa, inpaktua gutxitzeko. Espero dot inoiz halakorik gertatzen bada, ingurumenaren onerako adostasun egoki batea iristeko gai izatea.

Baina oraingoz behintzat ez da eragozpenik izanen aurtengo lasterketa egiteko...

Ez. Gainen eonen ga ahalik eta modu hobereenen moldatzeko. Guk askoz nahiago genuke zenbait lekutan lasterketarik ez sartzea baina antolatzaileek ibilbide bat proposatzen badute, guri dagokigu dauzkeun baloreak kontserbatzeko ahal dena egitea. Dena den, borondate onarekin hobekio itten da lan.

Mirua bezalako hegaztien kontserbazioan laguntzeko zer egin dezake giza-kiak?

Miruaren eta sarraskizale guztien arazo

haundienetakoa pozoia da. Pozoia jar-
tzea errega da, batzutan fede txarrakin
itten da animalik hiltzeko. Garai baten
hildako axuri batei extricnina bota eta
hura jaten zun guzie hil zittekeen, he-
gazti sarraskizalek, zakurrek, azerik eta
abar. Hori urte askotan, oso zabaldue
eon zen, oain oso gutxik itten due, beño
beste pozoi klase batzuk ere badie zu-
zenean ez bada ere, arazoak sortzen
dituztenak. Adibidez satañek kontrola-
tzeko ibiltzen dienak. Satañe edo sato-
rra azkeneko arnasa hartzeko kanpora
atea eta miru batek janez keo hil in di-
tteke. Kasu hortan abeltzainek ez zuen
mirue hil nahi, satañe hil nahi zun, beño
soka luzea do pozoiak, eta kasu larrie-
netan azienda eta pertsonengan eragin
dezake. Horreatik, ongi zaindu behar da
pozoien gaie. Pozoituta hildako miru
bat aurkituz gero pozoia nondik atera
den jakin eta berriz gerta ez dadin lor-
tzen saiatu behar da.

Tiroz botatako hegaztien kasuak badira?

Nik uste hortan asko hobetu dela azke-
neko urtetan, nahiz eta oaindik izanen
den putre edo arrano bat tiroz botako
lukeenik. Basozainak hor dabilteze kon-
trolatzen, baina ezinezkoa da dena
kontrolatzea, jendea hezi egin behar
da. Dena den, Kirikuk bost urte da-
mazki Aralar eta inguruan, hor ibili die
ehiztari eta abeltzain guzik bueltaka eta
ez dute akatu, beraz, nik uste jendeak
errespetu pixka bat ere baduela.

Argindarreko kableek ere tarteka kalte egiten dute...

Bai. 2013an, Urederra inguruan bi ugatz
irradi-transmisorez markatu ziren. Hi-
llabete batzuren buruan hil zien biak.
Bat basozainok aurkitu genuen Belate
inguruan eta argindarreko kable baten
zartako batekin hil zela jakin genuen.
Hori bada beste borroka haundi bet, ka-
ble horiek ongi isolatuk eon behar due,
bestela hegazti haundi asko hiltzen die,
argi-indarreko aritan zartakoa hartuta,
edo baita hegan doazela kableak jota
ere. Eta berdina pasatzen da haize erro-
ta haundi horiekin ere, han ere anima-
li asko akatzen dira. Gizarteak energia
behar do, beño ze zalle den garapen ja-
sangarrie lortzea!! Batentzat ona dena,
bestentzat txarra. Hemen ahal duguna
egiten dugu, ingurumenean oso baliabi-
de gutxi dauzkagu eta are gutxiago es-
pezie mehatxatuen babeserako. Jakiñe,
badintza hoietan borroka zalle da hau.
Hau bai mendi erronka! ■

“EHME ingurumenerako jasangarria izatea nahi dugu”

*Iñigo Oreja Euskal Herria Mendi Erronka lasterketako antola-
tzaileetako bat da. Badira, lasterketak naturan izan dezakeen
inpaktuaren aurrean kexu den jendea. EHMEko antolakuntzak
hasieratik izan du jasangarritasunaren aldeko kontzientzia eta
jarrera.*

Ekainaren 3an izanen da aurtengo EHMEko bosgarren edizioa eta ugatzak in- guruan ibiliko dira...



Bai. Badakigu ugatza hemen dabilela azkene-
ko urteotan. Aurten, bikotea egin zuela en-
tzun eta Hiru Handiak lasterketa a-tzea bota
zuela ikusita, Ingurumen Departamentue-
koekin harremanetan jarri ginen ea arazorik
egongo ote zen argitzeko. Eta pozik gaude,
basozainek kontrolatuz joango dielako eta
arrautza jarriz gero, mugatzeko neurriak har-
tuko dielako. Kumatuz keo beraiek esango
digute zenbateko distantzia errespetatu eta
gu prest egon gara beti, ugatza dela edo bes-
te edozer dela ahalik eta gutxien molestatu
nahi du. Eta ibilbidea aldatu behar bada edo
inguru hartan pertsona bat jarri behar bada
lasterkariri isilik pasatzeko esanez hala ei-
ñen da. Guk mendie sustatu nahi du politte
delako, biño lasterketak mendiri kalteik ein
gabe.

Kexak jasotzen al dituzue?

Kexak ez, biño badakiu batzuk kexu daudela eta ez daudela ados mendin ho-
rrenbeste jende ibiltzekin, molestie dela hegaztintzat, bidek izorratzen diela...
Biño guk baimen guzikin antolatzen du eta gure lasterketak ahalik eta kalteik
txikina eittea nahi du.

Zein neurri hartzen dituzue esaterako?

Lasterketa prestatzen denen, ibilbidea markatu eitten da pare bat egun lehe-
nago, eta lasterketaren ondoren, banda guzik jaso eta zatika-zatika boluntario
guzik dena goitik behera garbitzen due. Bilatzen dittuen paper zati, plastiko
edo bestelako zaborrak jaso eitten ditu. Boluntario guzik oso barneratuta due
mendie hartu dun bezelaxe utzi behar dula. Anoa postuetan ere edukiontzi
ezberdinak jartzen dira eta edalontzi berrerabilgarrik ibiltzen ditu.

Eta mendi bideetan halako kaltea egiten al du lasterketak?

Lehenengo urtean kriston eueldi txarra in zun eta txenda geldittu zen erabat
ondatuta beño basozainek esan ziutean handik hilabetera etorri eta bazirudi-
la handik inor etzela pasa. Beraz, demostratuta geldittu zen natura badintza
meteorologiko txarrenetan e hori jasateko prest daola. Gainera, horregatik ere
mugatzten dugu lasterkari kopurua 750 lagunetara, natura inporta zaigulako
eta lasterketa jasangarria izan dadila nahi dulako.

>> Nor da Nor?



Nor da nor?
Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?



Erantzunak hurrengo
alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!

Aurreko alean kaleratutako argazkian...
Ezkerretik eskuinera eta goitik behera:

Anjel Rekalde, Josune Garmendia,
Martin Sotil, Mikel Rekalde, Rufino
Buldain, Santi Garmendia, Javi Sotil,
Juan Pedro Alday, Eneko Arteaga, Amaia
Balda, Peio Rekalde, Ander Arraztio,
Juankar Buldain, Kontxi Arraztio, Lontxin
Zubillaga, Jokin Balda, Gaizka Sotil eta
Joseba Balda.



Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo
638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

- 15 -



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



.eus domeinua erabiliko du hemendik aurrera Araizko Udalak

Araizko Udalak, euskara eta euskal kulturaren komunitatearen Interneteko goi-mailako domeinu orokorra erabiliko du hemendik aurrera bere webgunerako eta posta helbide elektronikorako, .eus domeinua. Erabaki honekin, udalak euskara eta euskal kultura sustatu eta Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatea kohesionatzea du helburu. ".eus domeinuaren erabilerak euskara, beste hizkuntzen mailan kokatuz, euskararen normalizazioan lagundu eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen dio".

Honako hauek dira udaleko webgune eta posta helbide elektronikoko berriak:

www.araitz.eus eta udala@araitz.eus

- 16 -

Santa Ageda bezpera euritsua

Oso eguraldi txarra egin zuen aurtengo Santa Ageda bezperan, baina hala ere haur eta helduak kalera irten ziren koplak abestera. Araitz eta Betelukoak Azkaraten elkartu ziren eta herrian barna ibili ziren trikitilari eta bertsolariekin, ondoren herriko elkarteetan merienda ederraz gozatu zuten. Goialdean berriz, Lekunberrin, Albiasun eta Azpirotzen ibili ziren kantari, han ere Larraungo Bertso Eskolako bertsolarien eta txistularien laguntza izan zuten.

Uitziko tunela itxi egin dute euriteek sortutako kalteengatik

Plazaola Partzuergo Turistikoak Uitziko 2 kilometro eta 700 metroko tunel luzea itxi egin behar izan du azkenean bi hilabeteotan izandako euriteak direla eta. Tuneleko argiztapen sisteman eta zoruan kalteak eragin dituzte euriteek. Dagoeneko konponketa lanekin hasi dira eta Partzuergoak Aste Santurako amaitzea aurreikusten du. Bien bitartean tunela itxita egongo da eta ezingo da bertatik igaro.

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu. Antigua Kalea Nº7 31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

Ondare materiala auzolanean berreskuratzen



Ondare kultur taldeak ilbeltzaren 28an eta otsailaren 11n, bi auzolan egin zituen Oderitzan. Taldearen helburuetako bat haraneko ondare materiala berreskuratzea eta ezagutzera ematea da, horrexegatik, orain hamarkada batzuk erabiltzeari utzi zioten animalien perratokia berreskuratzea eta inguruko trikuharrak garbitu dituzte.

Martxoaren 4an, larunbata, 09:00etan, beste hitzordu bat izanen dute Etxarrin, bertako perratokia berreskuratzeari ekiteko. Aurrera begira beste herri batzuetan auzolanaren bitartez gure herrietako ondarea berreskuratzea eta ezagutarazteko helburua dute.



Oraindik ez al duzu izenik eman auzo konposta egiteko?

Ia hiru urte pasa dira Mendialdea Mankomunitateak eta Lekunberriko Udalak herrian konpostagailu komunitarioak jarri zituztenetik eta oraindik ez dute jendea sentsibilizatu eta behar bezala eragitea lortu. Orain, aurreko bi auzo konpost guneak, hiru gune berriengatik ordezkatu dituzte: Iturritak kaleko 3. zenbakian (Euskalduna tabernaren atzealdean), Artzanegi Kalean (pilotalekuaren ondoan) eta Zintzar Kalean (hilerriko jolas parkearen parean).

Udala arduraturik dago oraindik gutxi direlako auzo konposta egiten dutenak. Udal ordezkariak azaldu digute: *"Leku batzuetan hondakin organikoa biltzeko apustua egin dute eta guk, Mendialdea Mankomunitateak bere garaian egindako azterketa soziotekniko batean oinarrituta, auzoko konpostajea bultzatzea aukerarik egokiena zela ikusi genuen. Europar legediaren arabera, 2020. urterako hondakin organikoen kopurua erdira jaitsi beharra daukagu eta hori lortzen ez badugu ondorio ekonomikoak ekarriko ditu".*

Izan ere, gaur egun edukiontzi berdean biltzen da hondakin gehien. Mankomunitatean auzo konpostari buruzko kexak jaso, zalantzak argitu eta informazioa emateko prest daude. Oraindik auzo konposta egiten ez baduzu, eman izena Mendialdea Mankomunitatean: 948510444 edo info@mendialdea.eus

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL - HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gait Garcia · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



Alí Babá y los 40 ladrones opera emanaldian parte hartu du Luzia Peñak

Ópera de Cámara de Navarrak joan den abenduan, "Alí Babá y los 40 ladrones" opera lana estreinatu zuen Baluartean. Iñigo Casalíren lana taula gainera eraman zuten Bizkaia Orkestra Sinfonikoak, Gayarre Musika Eskolak eta Ópera de Cámara de Navarrako abesbatzak eta eskolak. Lekunberriko Luzia Peña Jimenezek bederatzi urte besterik ez ditu eta emanaldiko abeslari gazteena izan zen.

Urrian hasi zen Ópera de Cámara de Navarrako abesbatza abesten, baina betidanik gustatu izan zaio abestea. Amak, Arantza Jimenezek, ongi daki hori: "Luziak abestuz eta interpretatuz gozatu egiten du, hori izan da beti bere jolasteko modua. Erregeei beti mozo-rook eskatzen zizkien eta parkean girela banku batera igo eta kontzertuak eskaintzen zizkigun. Eta nire herriko

festetan, Sartagudan, aukera zuen aldi-
ro igotzen zen taula gainera abestera".
Hain zuzen ere, joan den udan Sartagudako aitonari eskaintako jota batek animatu zituen Arantza eta Iñaki Peña gurasoak alaba OCNn izen ematera. Abuztuan Sartagudako festetan aitonari jota bat eskaintzea polita litzatekeela bururatu eta Arantzak hain ezagun duen "Labrador era mi padre, labra-

dor fue mi abuelo” jota irakasten hasi zitzaion. Iñaki etxera iristean harriturik gelditu zen alabak ikasi berria zuen jota nola abesten zuen ikusterakoan. Eta abuztua iritsi zen, eta eskuak gerrian zituela hantxe eskaini zion aitonari. Le-kunberriko festetan ere batukadako taldean parte hartu zuen eta aurrez prestatutakoa ez zen arren, herriko plazan jota hori abestu zuen.

Arantza: “Guk ongi abesten zuela ikusten genuen eta gaitasuna bazuela, baina iritzi objektibo bat behar genuen. Iruñeko kontserbatorioko irakasle batek proba bat egin zion irailan, eta Alarn

Walkerren abesti bat abestu zion Luziak ingelesez. Irakasleak berehala esan zigun gaitasuna zuela eta urrian OCNn hasi zen”.

Bertan hasi eta gutxira, azaroan *Alí Babá y los 40 ladrones* opera emanaldian parte hartzeko proposamena egin zieten abesbatzako zenbait ikasleri, tartean Luziari. Hilabete gogorra izan zen, astebururo eta jaiegunetan, goiz eta arratsaldean entseatzeko baitzuten. Gogorra hara eta hona zebiltzan Arantza eta Iñakirentzat, Luzia berriz ere horrelako esperientzia bat noiz errepikatuko desiatzen baitago.



Luzia Peña

“Musika da nire zaletasunik handiena”

Eguneko 24 orduak motz gelditzen zaizkio Luziari eskolaz kanpoko jarduerentzako. Musikarekin zerikusia duten jarduerak dira denak.

Aralar Musika Eskolako ikaslea ere bazara...

Luzia: Bai, saxofoia jotzen dut eta abesbatzara ere joaten naiz.

Arantza: Ostegun arratsaldeak dira libre dituen bakarrak. Hemengo musika klaseak, saxofoikoak, OCNko entseguak, ostiraletan bi orduz kirol-gimnastika egiten du eta larunbat goizetan igeriketa sinkronizatura joaten da, musikarekin delako noski! Astear-tetan esaterako, goizeko bederatzia eta hogeietan ateratzen da etxetik eta gaueko bederatzi eta erdietan iristen da. Arratsaldean eskolatik atera eta Iruñera joaten da, kotxean meriendatu eta etxeko lanak egiten ditu eta hango entsegua bukatu ondoren, bidean afaldu eta saxofoiko klaseetara etortzen da. Ordu asko dira, baina berak jolas baten moduan ikusten du eta ikaragarri disfrutatzen du.

Iñaki: Guk ez dugu ezertara behartzen, berak eskatzen digulako joaten da.

OCNn hastea zaila egin al zitzaizun?

Luzia: Ez, lehenengo egunean nik ez nekien oso ongi nora nindoan, baina lehen klasean konbentziturik gelditu nintzen. Kantua, interpretazioa eta

dantza lantzen ditugu irakasle ezberdinekin.

Zein motatako abestiak abesten dituzue?

Luzia: Operakoak, klasikoak.

Eta hiru arlo horietako zein egiten zaizu zailena?

Luzia: Kantuko entseguak dira zailenak.

Entsegu asko izan dituzue Baluarteko emanaldia prestatzeko...

Luzia: Bai, emanaldian ez dugu klaseko guztiok parte hartu, baina niri proposatu egin zidaten eta larunbat eta igandeetan joaten nintzen entseatzera, goizez eta arratsaldean.

Iñaki: Azaro bukaeratik abendu bukaerara arte astebururo izan zituen entseguak, baita zubi foralean eta Eguberrietan ere.

Nola bizi izan zenuen emanaldiaren eguna?

Luzia: Egun hartan bi emanaldi eskaini genituen bat goizean eta bestea arratsaldean. Goizeko emanaldia hamabietan hasten zen, baina goizean goiz joan ginen makillatu eta prestatzera. Aurreko egunean entsegu orokorra



izan genuen eta egun hartan eman ziguten jarri beharreko arropa. Makillatu eta ilea lokatzarekin zikindu ziguten. Eszenatokian sartu aurretik oihalaren atzean egon behar genuen...

Arantza: Bera harritura gelditu zen eszenatokian atzean zegoen muntai guztia-rekin. Guk geuk ere ez genuen uste horren profesionala izango zenik.



“Kantuko entseguak dira zailenak”

Arantza: Emanaldiaren aurreko egunean ni arduratuta nengoan, taula gainean ez ote zen kikilduko, baina ez zen hala izan, urduri egon beharrean hunkiturik zegoen. Hala esan zidan: “Ama, nahiago nuke bihar egunero balitz”.

Esperientzia aberasgarria beraz...

Arantza: Bai, pozik gelditu zen, baina ondoren penaturik gelditu zen.

Iñaki: Aurretik esana ziguten saioaren ondorengo makalaldia izugarria izaten dela. Hilabete batez elkarrekin dena ematen ibili eta gero dena amaitu egiten baita bat-batean.

Arantza: Eta hala izan zen, gauean etxera iritsi eta bainu gelan ileko loka-tza kentzen ari ginela negar batean hasi zen penaz. Baina lasai egoteko esan genion hau hasiera besterik ez zela. Gainera, emanaldia bukatzeke zegoela maiatzerako, Bilboko Arriagan antolatzen dabiltzan beste emanaldi batean parte hartzeko proposamena egin ziguten. Baina ikusiko dugu, bederatzirte besterik ez ditu eta ordu asko dira. Erritmoa mantendu ahal dugun bitartea jarraitu egingo dugu. Berak gustuko du eta eskolan ere ongi dijoanez ezin ezetz esan. Gainera, halako esperientziak heldu egiten dutela konturatu gara eta arduratsua izaten ikasten du. Dena den berak ere badaki eskolako ikasketek lehentasuna dutela.

Iñaki: Zuzendari eszenikoa, koreografoa... nik ez nuen inoiz halakorik ikusi!

Zein zen opera horren argumentua?

Luzia: Alibaba, bere alabari bibolin bat erosteko dirurik ez zuen egurgile bat zen. Kassim, bere anaia, berriz, negozio gizon diruzale eta berekoi bat zen eta lapurrek ostu egin zioten. Osman, lapurren nagusiak kobazulo batean gordetzen zuen Kassimi lapurtutako di-

rua. Baina, azken hori ere berekoi hutsa zen eta beretzako lan egiten zuten haurretaz aprobeztatu egiten zen.

Arantza: “Mila gau eta bat gehiago” bildumako ipuin bat da, haur esplotazioaren gaiari buruzko kritika egiten duena.

Eta horrenbeste ikusleen aurrean jar-tzeak ez zintuen lotsarazi?

Luzia: Ez. Aiton-amonak, izeba-osabak eta lagunak ere etorri ziren ni ikustera.

Txooooo!x!

JUANLUZENA

SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

Martitxonea
sagardotegia

Inaxio Begiristain

Aldatz
Nafarroa

948604607

>> Kalaxka

Asiar Liztorra Larraunen

Asiar liztorra Larraunen dugu. Liztor hauen habia handiak ikus daitezke Lekunberrin, (Urzubiren aurrean), Errazkinen, Azpirotzen... Habia hauek tamaina handikoak dira, zuhaitz adar-buruetan jartzen dituzte, lurretik oso gora, eta oso zailak dira suntsitzeko. Horrez gain, habiak hutsak daudenean deuseztatzea alferrik da, ez baitute habia horiek berrerabiltzen.

Liztorrek 30 milimetro inguru dituzte eta erreginek 35 eta 40 milimetro izatera irits daitezke. Habia bakoitzak 1.500 eta 3.000 liztor artean eduki ditzake, eta handik makina bat erregina sortzen dira, habia berriak egiten dituztenak. Ugalketa oso azkarra dute eta ziztuan zabaltzen dira.

Printzipioz, espezie honek ez die kalterik egiten pertsoneri, baina arriskuan jartzen du biodibertsitatea. Loreak eta fruta helduak jateaz gain, intsektuen proteinak behar dituzte. Asiako liztorrak burua kentzen dio eta gero jan egiten du edo habiara eramaten du. Bereziki larria da erleekin gertatzen dena. Hauek, asiar liztorraren erruz, izugarri murrizten dira.

Ez da ahaztu behar erleak erabat beharrezkoak direla landare eta zuhaitz berriak sortzeko polinizazioaren bidez.

Larraunen, beste tokietan egiten ari diren bezalaxe, badago zer eginik. Herritarrok, gure herrietako erlezainok eta Larraungo eta Lekunberriko udalen inplikazioa behar dugu. Esate baterako, abisatu non dauden habiak, ikasi nola egin eta jarri tranpak, erlauntzetan tranpa be- reziak egin, pertikak erabili habietan pozoia botatzeko... Bistan da dena modu txukun eta ordenatuan egiteko, elkarlana erabat beharrezkoa dugula. Ea gauza garen Larraunen asiar liztorrari muga jartzen!




Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
HARATEGIA



Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

erreportajetxoa



Mozorro festa!

Otsailean Betelu, Arruitz, Baraibar, Lekunberri, Alli eta Aldazko inauteriak izan ditugu. Baina oraindik Gaintzakoak ditugu zain, martxoaren 11n ospatuko dituzte han (egitaraua 31. orr.).

Horra hor karroza eta mozorro artean ateratako zenbait irudi.





Betelun txikiteroak, pailazoak, mexikarrak, piratak eta haimaika pertsonai atera ziren kalera herrian urteroko erronda egitera. Ondoren herriko frontoian herri bazkaria egin zuten. Aldatzen ere trikiritax lagunduta puska biltza egin zuten.



ekin
rotulación
948 8532 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

GARAIZ
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara
Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika inglesa
lengua kimika
euskeraz marraketa tekniko
historia
unibertsitate mailako ikasgaiak
948 504 450
64825352

ETORRI ETA INFORMAZIÓNA ZAITEZUN!

AEKk hainbat ekitaldi antolatu ditu Korrika kulturalaren baitan

Apirilaren 4an goizeko lau eta erdiak aldera Astitzera iritsiko da Korrika eta Lekunberri eta Azpirozetik barna Betelu alde-rantz jaitsiko da.

Aurreko aldietan bezala, oraingoan ere zenbait kultur ekitaldi prestatu dituzte giroa berotzen joateko. Martxoaren 18an Uitziko elkartearen afaria izanen da musikaz alaiturik eta apirilaren 4ra bitarte kultur ekintza ezberdinak izanen dira. Martxoaren 22an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak etorriko dira. Horrez gain, ipuin kontalariak, bertso afaria, korrika txikiak eta bestelakoak izanen dira (Egitaraua 31. orr.).

Larraungo AEKko langileak buru-belarri dabilta Korrikako 20. lasterketa prestatzen eta ezinbestekoa dute herritar guztien laguntza.

Kultur ekitaldietan parte hartzeaz gainera, Korrika laguntzeko beste hainbat bide eskaintzen dituzte. Abian da jada

Korrika laguntzaile kanpaina. 12 euroren truke pina eskuratu eta Euskal Herriko hainbat denda, jatetxe eta komertzioetan erabiltzeko deskontu txartela etxean jasoko du. Enpresa edo saltokia izanez gero, Korrika lagun ere izateko aukera dago, herriz herri egiten den diru bilketarekin.

Bestalde, kilometroak eskuragarri daude 680 54 28 26 telefono zenbakira deituta eta bulegoan bertan Korrikako arropa eta materiala dute salgai. Horrez guztiaz gainera, Korrikaren izenean Euskadiko Kutxan zabaldu den kontu korrontean nahi den ekarpena egin daiteke (3035 0072 02 0720037810).

Korrika Batzordeak sortu dituzte bai Lekunberri eta baita Araitzen ere. AEKtik beraiekin parte hartzeko gonbita luzatzen dizute, zure laguntza behar dute!

- 24 -

Soto, Terreros eta Karrika gailendu dira lehenenengo hiru final-laurdenetan

Dagoeneko Nafarroako Bertsolari Txapelketako bost final laurdenetatik hiru jokatu dituzte. Otsailaren 18an, Tafallan jokatu zuten lehena sei bertsolarik eta honela gelditu zen sailkapena: Julio Soto (343,5 puntu), Iñigo Olaetxea (307,5), Kotte Plaza (290,5), Mikel Lasarte (284), Iban Garro (273) eta Sahats Aleman (251,5). Juliok jaso zituen puntu gehien jada lortu du martxoaren 18an Beran jokatu den finalaurrean sartzea. Bigarren finalaurrean Auritzen jokatu zen eta Xabier Terreros (321,5 punturekin) sailkatu zen Martxoaren 19an Antsoainen jokatu den finalaurrearako. Bere atzetik gelditu ziren Saioa Alkaiza (296,4), Ioar Tainta (288,5), Alazne Untxalo (280), Patxi Castillo (262) eta Joana Ziganda (248). Larraungo

Bertso Eskolako bertsolaria da Joana eta lehen aldia zuen txapelketan. Oskoztarra sentsazio onarekin gelditu da, "Esperientzia aberasgarria izan da niretzat. Emozio nahasketa handia bizi



nuen; urduri, beldurra... baina gustora aritu nintzen. Saioaren hasieran nire burua kokatzea izan zen zailena. Ofizioka egin-dako lehen bertsoaldietan urduri abestu nuen. Saioa hasiurretik kartzelako lanari nion beldurrik handiena eta hori aldiz ongi joan zen". Bestalde, Lakuntzan izan zen hirugarrena eta horrela gelditu zen sailkapena: Aimar Karrika (344,5), Eneko Lazkoz (344), Iker Gorosterrazu (300) Joanes Illarregi (299,5), Oier Lakuntza (288) eta Egoitz Gorosterrazu (263,5). Oraindik beste bi final laurden gelditzen dira eta horiek jokatutakoan lortutako puntuazioaren arabera ezagutuko dugu finalerdietan parte hartuko duten 18 bertsolarien izenak.

“Araitzen bizi eta lan egin nahi dugulako”

Araizko Udalak Cedernako garapen agentearekin batera bailarako etorkizunaz arduraturik garapen egitasmo bat jarri nahi du martxan herritarren laguntzarekin. Horretarako batzorde bat sortuko dute, herritarren elkarlana sustatu, eta bailarako ekonomia eta elikadura burujabetza bultzatzeko.

Udalari ezinbestekoa zaio herritarrek bailararen etorkizunari buruz duten iritzia eta ikuspuntua jakitea eta horretarako bi bilera deitu ditu datorren martxoaren 9 eta 23rako, bilerak arratsaldeko 18:00etatik 19:30tara izanen dira Araizko udaltxean. Bilerak irekia da, baserritarrei, ekoizleei, dendariei, tabernariei, enpresei nahiz norbanakoei zuzendua. Goazen Araizko etorkizuna elkarrekin marraztea!



Okinatik Azazetako mendatera ateraldia egingo du Ttutturrek

Arabako Lautadara hainbat ateraldi egin dituzte jada Ttutturre Kiroel Elkarteko mendizaleek. Joan den hilean Gasteizko mendatea eta Okina arteko etapa egin zuten. Martxoaren 26an, Okinatik Azazetako mendatera dagoen zatia egingo dute, hiru ordu eta erdiko ibilbidea. Hilabeteko azkeneko igandetan antolatzen dituzte ateraldiak eta elkarteko bazkide ez direnek ere parte hartu dezakete. Elkarrekin berak ateraldirako antolatzen duen autobusa eta bazkaria ordaintzeko 25 euro jar-tzen ditu mendizale bakoitzak. Ateraldiren batean parte hartu nahi baduzu jarri harremanetan, ttutturrekirolelkarrea@gmail.com e-postaren bitartez edo 680 652 183/607 532 569 telefono zenbakietan.

Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan hainbat kultur ekitaldi antolatu dituzte

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna izanen da eta urtero bezala Lekunberriko Udalak Itxaro Emakume Elkartearekin batera egitarau zabala antolatu du hilabete osorako.

Martxoaren 8an, eguerdiko hamabietan kontzentrazioa egingen dute udaletxe parean eta iluntzeko 20:00etan pintxo dastaketa izanen da Kattagorri elkartean. Horrez gain, emakumeen afaria, irakurketa herrikoia, zine emanaldia, hitzaldi bat eta kultur bidaia antolatu dituzte. Aurtengoan Zugarramurdiko Sorginen museora joatea da egin duten proposamena.

Bestalde, eskolako argazki lehiaketa digitala ere antolatu dute zortzi eta hamalau urte bitartekoei zuzendua. Aurreko argazkien gai nagusia “emakumea” izan beharko du. Lehiaketan parte hartzeko oinarriak eskuragarri daude: 948 60 45 82 telefono zenbakian.

EMAKUMEAREN EGUNA

Martxoak 8

- 12:00 Emakumearen Nazioarteko Eguneko kontzentrazioa.
- 19:00 Lekunberriko garbilekuan, Larraungo emakumeari omenaldia.
- 20:00 Pintxo dastaketa (prestaketa 19:00etan Kattagorri elkartean)

Martxoak 11

- 21:30 Emakumeen afaria Euskalduna tabernan (Izen ematea: 648 60 45 82)

Martxoak 15

- Emakumeari buruzko irakurketa herrikoia Mitxausenean.

Martxoak 17

- 20:00 Hitzaldia udal aretoan. Gaia: “Adimen emozionaletatik emakumea ispiluaren aurrean”

Martxoak 21

- 20:00 Zine emanaldia udal aretoan, “La bicicleta verde”.

Martxoak 26

- Kultur bidaia Zugarramurdiko sorginen museora (Izen ematea: 948 60 45 82).

Aurki ezagutuko da sinadura bilketaren emaitza

Joan den hilean Mendialdeko Gure Esku Dagok hainbat ekimen antolatu zuen. Atalluko elkarteetan, Patxi Zabaletak eta Juan Kruz Lakastak hitzaldia eskaini zuten. Lekunberrin ere, Plazaola tren geltokian Felipe Uriarte, Oñatiko eta Mendialdeko Gure Esku Dago ekimenetako lan taldeko kideak eta Josu Albero, Azpeitiko Gure Esku Dagoko kideak Oñatin eta Azpeitian jarraitutako ereduaren nondik norakoak azaldu zizkieten bertaratu zirenei. Goizuetan, gazte eta helduen artean murala margotu zuten eta afari eder baten bueltan elkartu ziren gero. Eta Areson, Angel Oiarbide, Gure Esku Dagoko bozeramaileak ere hitzaldia eskaini zuen. Amaitu da sinadura bilketarako epea eta datorren asteetan jakinaraziko du Mendialdeko Gure Esku Dagok ekainaren 18an herri galdeketa egiteko nahikoa babes lortu duen edo ez. Gainera, hainbat hitzaldi eskainiko dira hilabete honetan eta martxoaren 26an Betelun jaialdi bat antolatuko du taldeak.

Informazio gehiago: gureeskumendialdea@gmail.com




GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADI!!! TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Azukreak eta edulkoratzaileak

Edulkoratzaileek janariari zapora emateko gaitasuna dute eta horretarako erabiltzen dira batik batik, baita azukre zuria ordezkatzeko ere. Substantzia hauek eguneroko elikaduran erabiltzeak, modu osasuntsuago batean jateko aukera ematen du, eta zenbait gaixotasun saihesteko ere, obesitatea, diabetesa... Baina honetan ere onuragarriak eta kaltegarriak aurki ditzakegu. Edulkoratzaileak lau taldetan sailkatzen dira:

EDULKORATZAILE NUTRITIBOAK: glukosa, fruktosa, laktosa, galaktosa... Elikagaietan aurkitzen ditugunak, frutan, esnekietan...

EDULKORATZAILE ALKOHOL EDO POLIOLAK: sorbitola, manitola, xilitola... Txikle eta gozokietan erabiltzen dira

- Panela azukrea.
- Fruitu lehorrak edo deshidratuak. Beti kantitate txikietan.
- Eztia: hau ere kantitate txikietan. Ez berotu eztia, propietateak galtzen ditu eta.
- Agabezko jarabea.
- Astigarrezko jarabea.
- Algarroboa. Bitamina eta mineral asko ditu.
- Estevia. Naturala eta kaloria gabekoa da estevia. Azukre normala baino 80 aldiz gehiagoko zapora gozoa ematen die elikagaiei. Bestalde diabetesa erregulatzen du, eta zirkulazioa hobetzen du.

batik batik, baita energia edo kaloria baxuko elikagaietan.

EDULKORATZAILE KIMIKO ETA ARTIFIZIALAK: aspartamo, sakarina (ezagunena), acesulfamo, ciclamato... (hauek gutxitu edo ezabatu elikaduratik).

EDULKORATZAILE NATURALAK: Estevia, glizirrina...



Edulkoratzaile naturalak eta nutritiboak energia ematen digute baita ere, hau da 4kcal/g bakoitzeko. Karbohidrato naturalak dira. Polioliak edo edulkoratzaile alkoholak gozoak dira, baina gure heste mehean gutxi xurgatzen dira, horregatik kaloria baxuko elikagaietan erabiltzen dira. Edulkoratzaile hauek ura behar dute hesteetan eta soluzio isotonikoak sortzen dira, horregatik efektu laxantea eragin dezakete. Bestalde edulkoratzaile kimikoak dira gehien erabiltzen direnak, ez baitute ia kaloriarik. Oso garrantzitsua da jakitea zein erabili, denak ez baitira osasuntsuak, eta epe luzean osasun arazoak eragin ditzakete. Ondorengo taulakoak dira erabil daitezkeen azukre edo edulkoratzaile osasuntsuenak.

Edulkoratzaile natural hauek erabiltzen saiatu, zure osasunak eta gorputzak eskertuko dizute.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

Kantina Rock

948 60 48 21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

Apirilaren 2an izanen da aurtengo Lekunberriko Legoa



Arruizko Txikitoren omenezko Legoa martxotik apirilera atzeratu dute aurtengoan eta hainbat berritasun izanen dira. Apirilaren 2an goizeko 12:00etan emanen zaio hasiera proba nagusiari. Betiko ibilbidea mantenduko da, sei kilometro eta 40 metrokoa, Lekunberritik Azpirozko Ziatarren etxerainoko joan-etorria.

Baina horrez gain, aurten bigarren ibilbide bat ere egiteko aukera eskainiko dute antolatzaileek, *“distantzia popularrago bat sartu dugu, Lekunberritik, Azpirozko mendateraino eta buelta. 4 kilometroko ibilbide horrekin eskualde honetako jende gehiago erakartzea lortu nahi genuke”*. Sariak ordea distantzia absolutuko ibilbidean parte hartzen dutenentzat izanen dira soilik. Hori bai, aurten sari gehiago izanen dira eta haraneko artean afariak eta bertako produktuak zozketatuko dira.

Kuadrilan ateratzen diren korrikalarietzat Aiestaran Hotelen lau afari oparituiko dira. Kuadrila eskualdeko hiru edo lau lagunez osatutakoa eta mistoa beharko du izan nahitaez. *“Taldean izena ematen dutenen artean zozketa egingo da, berdin du zein distantziako ibilbidea egiten duten eta zein postutan sailkatzen diren”*.

Proba nagusiaren aurretik haurren lasterketa egingo da. Frontoian goizeko 10:00etan irekiko da izen emateko mahaia eta 10:30ean hasiko da lasterketa.

Adi! Aurten kronometraje enpresa aldatu egin dute eta aurrez izen-emateko aukera atari honetan eskainiko da: www.rockthesport.com

Satorzulok IV. Frontenis Txapelketa antolatu du

Martxoaren 4an, Beteluko frontoian Satorzulo lokaleko gazteek antolatutako frontenis txapelketa jokatu da. IV. jardunaldia da aurtengoa eta lehen postuetan gelditzen diren bikoteentzat sari ederrak izanen dira. 300 euroko eta 25 euroko txartela jasoko du lehen bikoteak Beteluko Aitz Berri edertasun zentroan erabiltzeko. Bigarren bikoteak

100 euroko eta 15 euroko beste txartel bat. Hirugarren sailkatzen den bikoteak Arribeko San Miguel edaritegian afaria eta laugarren bikotearentzat Maite Harategiko produktuen saskia. Gainera, haraneko bikote onenak Betelu Vending saltokiko produktuen saskia ere eramanen du.

Finaleko partiduekin amaitu da Larraungo Pilota Elkarteko Neguko Txapelketa



Joan den hilean Larraun Pilota Elkarteko pilotariek Neguko Txapelketako finalak jokatu zituzten. Alebinetan, eskuz banakako txapelketan, Aitor Eguzkizak irabazi zuen Aitzol Salaberriaren kontra. Infantiletan, Aimar Goldarazena eta Ander Iriarte bikotea gailendu zen Akier Arroki eta Iker Ortizen kontrako partiduan. Eta kadeteetan, Iñaki Galarzak eta Aimar Saralegik irabazi zuten Oinatz Iriarte eta Aitor Etxarriren aurka.

Sariak Nafarroako federazioko ordezkaria den Jesus Mari Orejak banatu zituen.



Diru-laguntza eskainiko du Kirol Mankomunitateak kirol arloko formaziorako

Eskualdeko Kirol Mankomunitateak diru-laguntza deialdia egin du 2016an kirol arloko formazioan gastuak izan dituzte-entzat. Jarduera fisikoan formazioa jasotzen ari diren pertso- nei gastuei laguntzea da helburua eta horretarako Mankomunitateak 1.000 euroko partida bideratuko du. Deialdian parte hartzeko, beharrezkoa izanen da Araitz, Areso, Betelu, Lekunberri edo Larraungoa izatea, jarduera fisikoarekin erlazionatu-

tako ikastaroren bat egitea eta 2016an ikastaroa bukatu eta gaintitu izana. Eskaerak, apirilaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira, Kirol Teknikariaren bulegoan edo Lekunberriko Plazaola kiroldegian.

Informazio gehiago: 948 46 48 66 telefono zenbakian edo kirolmankomunitatea@gmail.com e-postan.

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

Lagundu Mailope!
Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailto:mailope@labrit.net



Zoriondu itzazu zune lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxe



Josu Zabaleta Argiñena
Otsailak 16, 5 urte.
Zorionak, Josu, gure etxeko txikina eta gure biziaren poza, jada 5 urte. Zorionak zure famili guztiaren partetik. Muxu erraldoi bat.



Aner Otermin Iriarte
Martxoak 7, 2 urte.
ZORIONAK PITTIN!!!!
Ze azkar pasatzen den denbora... jada bi urte, ze haundia gure Anertxo!!!! Muxu pottolo bat Arribeko familiaren partez, baina bereziki Elene eta Danelen partez.



Jokin Mitxelorena Eskamendi
Martxoak 3, 3 urte.
Zorionak, Jokin!! Martxoaren 3an 3urte beteko dituzu. Ongi pasa ta muxu haundi bat bihurri. Aita, ama eta Manex.



Jesus Altuna
Martxoak 24.
Sasoiko dauku oaindik attuna; eutsi horri! Urte askotako!! Muxu haundiet etxeko guztien partez.



Lander Flores Eskamendi
Martxoak 30, 8 urte.
Zorionak, Lander! Segi horrela, hain bizkorra!!! Muxu handi bat Naroa, Ibai, ama eta aita.



Bittor Esnaola Sotil
Martxoak 12, 3 urte.
Oso ongi pasa zure egunean. Muxu handi bat aita eta amaren partez.



Irune Saralegi
Martxoak 6, 9 urte.
Zorionak eta urte askotarako Irune! Dastatu zure gogoko gozo, txokolate eta esne!! Jolastu ahal duzun gehien eta ibili erne!! Txantxaren bat egiten badizu norbaitek ai ene!! Dantzatu eta abestu astinduz gone!! Zure bihotzari muxuak eta besarkada bat one!! (Aita, Ama, Ekiñe eta Lekunberriko lagunuen partez).

Yanua eta Uxue Lourido
Uxuek martxoaren 10ean, 7 urte.
Yanuak 22an, 9 urte.
Zorionak bikote!! Oso ondo pasa eta muxu haundi bat etxeko partez.



Iker Hernandez Irisarri
Martxoak 24, 9 urte.
Zorionak, Iker! Ondo pasa etxeko partetik!



Igor
Martxoak 28, 9 urte.
Zorionak Igor! Jarraitu beti bezain pozik eta irrifartsu. Asko maite zaitugu, aita, ama eta Norak.



Jon Vicente Alkorta
Martxoak 4, 4 urte.
Zorionak etxeko partetik!!! Muxu haundi-haundi bat pottolo!!!



Uxue Jauregi Olano
Martxoak 6, 14 urte
Urte askotako maittea!! Muxu handi bat etxeko partez.



Eros Paul Mendez Campos
Martxoak 30, 8 urte.
Zorionak seme, asko maite zaitugu, Elena, aita eta amaren partez.



Unai Amoztegi Goikoetxea
Martxoak 12, urte 1.
Urte bat gure bizitzak alaitzen; segi horrela pottoko! Muxu potolo bat! Etxeko guztien partez.

martxoa

4 Ondare kultur taldeak deitutako auzolana Oderitzen.

4 Satorzuloko IV. Frontenis Txapelketa Bete-luko frontoian.

5 The Romanticos (R&B) taldearen kontzertua Kantinan, 19:30etan.

9, 23 Araizko etorkizun sozioekonomikoa aztertzeke bilera, arratsaldeko 18:00etan Araizko udaletxean.

19 CESAR CRESPO & THE PINBALL'S BLUES PARTY (Boogie, Rock'n'Roll) 19:30etan Kantinan.

26 Ttuttureren mendi ateraldia Arabako lautadara, Okinatik Azazetako mendatera.

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Etxea salgai, Errazkinen 390 metro karratuko etxea, hiru bizitza egiteko modukoa. Harremanetarako: 948 504 343 / 605 712 750

- Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5Tdi 5 zilindroak 102cv. Nazionala. 340.000Km. Oso ongi zainduta, beti garagen. Extra askoekin (Bizikletak eramateko euskarria, toldoa, aurreratze sistema, berogailu estatikoa, bihurgailua...) Argazki eta informazio gehi- agorako jarri zaitez harremanetan: 630 041 480.



ALOKAIRUAN

- Etxebizitza bila!! Alokatzeko pisu edo etxe baten bila gabiltza Atallu, Arribe edo Betelun. Harremanetarako: 663 764 056 (Venus).

- Pisia alokatzen da Bete-lun, bizitzera sartzeko prest. 80m2-ko pisua altzariz hornitua. 690 006 283 (Mila).

- Bajera bat alokatzen da Betelun. 690 006 283 (Mila)

ADII

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.

KORRIKA KULTURALA

- **Martxoak 18:** Uitziko elkartean afaria musikarekin.
- **Martxoak 22:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots Tipi-Tapa korrika emanaldia Lekunberriko kiroldegian. Arratsaldeko 17:00etan. Sarrerak salgai: AEK euskaltegian, Lanbroan, Mitxauseanean, Leitzako Maimur liburu dendan eta egunean bertan ere.
- **Martxoak 26:** Korrikako arropa desfilea eta lehiaketa egingo da Lekunberrin.
- **Martxoak 28:** Ipuin kontalaria Lekunberriko euskaltegi berrian (frontoi ondoan).
- **Martxoak 31:** Bertso-afaria Erbitiko elkartean, 20:30ean. Joana Ziganda, Ander Fuentes "Iturri", Joanes Ilarregi, Eneko Laz-koz, eta Arkaitz Goikoetxea gai-jartzailea.
- **Martxoak 31:** Korrika txikia Lekunberrin.
- **Apirilak 1:** Festa antolatuko da Araitzen, otordu baten bueltan.
- **Apirilak 3:** Korrika txikia Beteluko eskolan, Atallutik Betelura.
- **Apirilak 3tik** 4rako gauean denak KORRIKA egitera (5ak aldera Lekunberrin, 6ak aldera Betelun).
- **Apirilaren 3tik** 9rako aste horretan zenbait ekintza aurrera eramango dira Beteluko eskolatik:
 - Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleentzat Txokolipuinak ipuin kontalaria izanen da apirilaren 6an, 17:00etan, Beteluko eskolan.
 - L.H.ko 3-4-5-6. mailakoekin "Araitz Beteluko Ahotsak" liburua landu eta egileren batekin elkartu.
 - DBHko ikasleekin hemengo euskalkiaren erabileraren inguruko hausnarketa egin.
 - Mahai ingurua irakasle, guraso eta ikasleen artean "Kriseilua" kanpainari buruzko hausnarketa eginez.


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
 TABERNA
 ARALAR, 15**
948 60 47 24

**TAXI
 SOROA**
609 168 217
 Bederatzi plaza



MATRIKULATZEKO EPEAK

- *Beteluko Haur Eskola, elebakarra (euskaraz)* ·
- *0-3 urte bitarteko haurrak hartzen ditu* ·
- *Bi modulu daude, 4 ordu eta 7 ordukoa* ·

Ordutegia: 8:00etatik 16:30era
 948 513 001 - sorgintxohaureskola@hotmail.com
 Antigua kalea 5,
 31890 Betelu

Informazio gehiagorako gure webgunea:

*** sorgintxohaureskola.wordpress.com ***

2017-2018 IKASTURTERAKO MATRIKULA EGUTEGIA



MARTXOA

ASL	AST	ASZ	OSG	OSR
		1	2	3
6	7	8	9	10
13	14	15		

IKASLE BERRIEK
AURRE MATRIKULA
EGITEKO EPEA

MAIATZA

ASL	AST	ASZ	OSG	OSR
				5
8	9	10	11	12
15	16	17	18	19
22	23	24	25	26

ONARTUEN BEHIN BEHINEKO
ZERRENDA

ERREKLAMAZIOAK EGITEKO
EPEA

ONARTUEN BEHIN BETIKO
ZERRENDA

MATRIKULA EGITEKO EPEA

Paperak hartu eta uzteko ordutegia eta tokia:
 Sorgintxo Haur Eskolan, astelehenetik ostiralera
 9:00 - 10:00 eta 15:00 - 16:30 bitartean